

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak izango dira gure negozioa aurrera eramateko behar beharrezkoak diren baliabideak, alegi, hauek gabe ezingo dugu gure negozioa martxan jarri.

Pabiloia: Lehenik eta behin eremu egoki bat behar dugu, hau da, pabiloi bat edo polikiroldegi bat non bertan egongo dira pistak, taberna, harrera-lekua etab. Hori izango da azpiegitura nagusia.

Pista eta pelotak: Kirol hau jokatzeko behar beharrezkoa behar dugu pista egoki bat dagokion neurriekin, pelotak eta erraketa, non harrera-lekuan, erraketa ez baduzu edo ahaztu zaizulako aukera egongo den alokatzeko.

Harrera-lekua: Baliabide hau erabiliko da ordainketak egiteko, zalantzak argitzeko, baliabideak alokairuan saltzeko eta instalazioen kudeaketa egiteko adibidez argiak piztu edo itzaltzeko.

Higiene instalazioak: Legez poloikorlegi batek edo kirola egiten den pabiloi batean aldagelak eta komunak egon behar dira, gainera honek gure bezeroei izugarritzko erosotasuna eskeiniko die.

Webgunea: Baliabide honen bidez jendeak pistak erreserbatu ahal izango ditu, edozein zalantza argitzeko telefono zenbaki bat egongo da eta gure negozioak eskeiniko dituen berrietasun guztiak jarraitu ahal izango ditu.

Mantentze-lanetako arduraduna: Gure azpiegituretako edozer gauza hondatzen bada egun guztien zehar pertsona bat egongo da lan horietaz arduratuko dena.